

2024DEKR2729

DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hogeitalauko azaroaren 15ean

2023ko ekainaren 19an 2023DEKR1877 dekretu bitartez, Tokiko Gobernu Batzarreko kideak izendatu zituen Hernaniko Alkateak

2024ko maiatzaren 19ko 2024DEKR1265 dekretu bitartez, eta 2024ko uztailaren 18ko 2024DEKR1851 dekretu bitartez Tokiko Gobernu batzarreko kideen izendapena zabaldu zuen Hernaniko Alkateak .

2024ko azaroaren 05ean Euskal Herria Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeek Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapen berriak proposatu dituzte.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 eta 23.3 artikuluek eta Euskadiko Toki Erakundeei apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 27. artikulua ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENA.-Orain arteko izendapen dekretuak eta izendapen proposamenak kontutan hartuz Tokiko Gobernu Batzarreko kide titular eta ordezkoko kide izendatzea aipatutako zinegotzi hauek, indarrean dagoen tokiko araudiak ematen dizkien ahalmen eta eskubideekin.

KIDE TITULARRAK	ORDEZKO KIDEAK
1.- Itsaso Lekuona Legorburu (EH Bildu)	Axier Mingo Arruabarrena (EH Bildu)
2.- Patxi Iburguren Etxeberria (EH Bildu)	Aitor Huzi Izagirre (EH Bildu)
3.- Ainara Atorrasagasti Urizar (EH Bildu)	Oier Agirresarobe Lizaso (EH Bildu)
4.- Aitor Lukas Solano (EH Bildu)	Amaia Miner Canflanca (EH Bildu)
5.- Andoni Amonarraiz Gomez (EAJ-PNV)	Mikel Gurutzeaga Zubillaga (EAJ-PNV)
6.- Maria Jesus Ruiz Ochoa (PSE-EE)	Ricardo Crespo Rubio (PSE-EE)
7.- Lourdes Lopez Gorrotxategi (Elkarrekin Podemos)	Jaione Aristregi Cao (Elkarrekin Podemos)

BIGARRENA.- Zinegotzi horiei ebazpen honen berri ematea, eta Udalbatzari ere bai, egiten den hurrengo Osoko Bilkuran. Erabakiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau Alkatezako Ebazpen Liburuan jaso behar da, eta hartzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du eta nik, Patxi Lapatza Gortazar Bengoa idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut

Gudarien Plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 11 41 – e-mail: erregistroa@hernani.net



EKS | CSV: **ESKU6e8740de-f419-4dee-a28c-49f40a815a13**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>